3.3. UKIPENAREN ONDORIO SOZIALAK

Elebitasun nozioa bi hizkuntza erabiltzeko gaitasuna duen norbanakoari aplikatzen zaiola esan dugu (3.1.1.). Batzuek izendapen hori komunitateari ere aplikatu diote, **elebitasun soziala**. Kasu horietan bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daude komunitate edo gizarte berean. Hizkuntza-ukipen hori desberdina izaten da une eta toki bakoitzean.

Halere, **elebitasun sozialaren** edo **gizarte-elebitasunaren** ordez, **diglosia** da hedatu den terminoa. Fishman soziolinguista estatubatuarrak landu du bereziki kontzeptu hori. Elebitasuna, banako egitatea denez, esan nahi baita norbanakoaren gaitasuna, psikolinguistikari utzi zion, eta diglosia, hizkuntza bat baino gehiagoren erabilera gizarte batean, gizarte-egitatea izanik, soziolinguistikari (Fishman, 1972: 91).

Harentzat gizarte-faktore eta parametroak indibidualak baino interesgarriagoak ziren. Fishmanentzat norbanakoa, edozein, errore aldakorra besterik ez da gizarte-ikerketaren perspektiban (García eta beste, 2006: 17).

Diglosia, gertakari soziala bada, gizarte osoaren edo bederen gehiengoaren fenomenoa da, edo hizkuntza-gutxiengo batena, edo gizarte-klase batena.

3.3.1. Diglosia

Weinrichentzat elebitasuna fenomeno indibiduala zen bereziki. Jarraian Charles A. Ferguson elebitasun sozialari buruz interesatu zen, **diglosia** kontzeptua teorizatuz (Ferguson, 1959). Esan behar da Fergusonek baino lehen Jean Psichari (1854-1929) frantses helenistak diglosia (*diglossie*) terminoa, grekoz *di-* "bi aldiz" + *glóssa* "hizkuntza", erabili zuela bi greko-mota hauek sailkatzeko: alde batetik, *katharevoussa*, garbizaleek sustengatzen zuten hizkuntza jaso idatzia, eta, bestetik, *demotikoa*, eboluzioaren ondorengo gaur egungo forma arrunta (Henri Boyer, 2001: 48).

Fergusonen diglosia

Charles A. Fergusonen diglosia kontzeptuak arrakasta handia lortu du. Frantses *diglossie* hitza hartuz ingeles *diglossia sortu* zuen. Kontzeptua eraikitzeko lau kasu aztertu zituen, bakoitzean hizkuntza beraren bi barietate sailkatuz: Suitza alemanean, aleman estandarra eta tokiko aleman suitzarra; Egipton, arabiera klasikoa eta dialektala; Haitin, frantsesa eta kreolera haitiarra; eta Grezian greko garbitua eta demotikoa.

Ferguson diglosiaz mintzatzen zen hizkuntza beraren bi barietateen kasuan, eta horien arteko erabileren sailkatze funtzionala bereizi. Bata *goi-barietatea* (*high variety*) elizan, literaturan, mintzaldietan, unibertsitatean… erabilia dena, eta bestea *behe-barietatea* (*low variety*) eguneroko solasaldietan, literatura herrikoian… erabilia da. Goi-barietateak behe-barietateak ez duen prestigio soziala du, mirespen handiko literatura sortzen du, estandarizatua da (gramatikak, hiz-

tegiak...), eskolan irakatsia da, etab. Behe-barietateak, aldiz, ez dauzka horiek oro; prestigiorik gabekoa da. Helduek haurrekin erabiltzen dute eta haurrek beraien artean. Behe-barietatea familiako transmisioaz ikasten dena da. Fergusonen hitzetan goi-barietatea *gainjarria* (*superposed*) dago, ikasia delako normalki eta era formalagoan.

Bederatzi dira Fergusonek goi (H) eta behe (L) aldaeren artean antzeman zituen ezberdintasunak:

1. **Funtzioak**. Aldaera bakoitza gizarte-funtzio batzuetan erabiltzen da, beraz, egoera sozial ezberdinetan.
2. **Prestigioa**. H-k L-k baino prestigio handiagoa izan ohi du.
3. **Literatur tradizioa.** H-k tradizio hori garatua izan ohi du; L-k, ordea, ez.
4. **Eskuratzeko bidea.** H barietatea hezkuntza sisteman ikasia izan ohi da: L, aldiz, berez haurtzaroan eskuratua.
5. **Estandarizazioa**. H aldaeran oinarrituta egiten da. Dena dela, L-k ere izan dezake nolabaiteko forma estandarra.
6. **Ezegonkortasuna**. Diglosiak aldatzeko joera izaten du.
7. **Gramatika.** Sistema gramatikal ezberdinak izan ditzakete. L-rena ez da hain konplexua izaten.
8. **Lexikoa.** Lexikoaren zati handia berdina bada ere, batzuetan forma ezberdinak erabiliko dituzte gauza berak adierazteko. H-k hiztegi garatuagoa izango du.
9. **Fonologia.** Lexikoarekin gertatzen den bezala, sistema fonologikoa oro har berdina izanik ere, badira ezberdintasunak ere (batzuetan bilatuak).

Diglosia horri **barne-diglosia** edo endodiglosia deitu izan zaio, hizkuntza bereko bi barietateren artean gertatzen delako.

Halere, Fergusonen modelo horren ezaugarrietatik bat gaitzetsi izan zen bereziki: diglosia ez zela egoera egonkorra, ez denboran, ez funtzioen banaketan, hark esaten zuen bezala.

3.3.3. Ierroaldean, **hizkuntza-gatazka** nozioa aztertuko dugu. Soziolinguista batzuek hizkuntza beraren barietateen edo ukipenean diren bi hizkuntzen egoera desorekatua dela azpimarratu dute.

Fergusonen diglosia egoeran, barietateen esparruak konpartimentatuak eta egonkorrak dira, bi barietateen funtzioak ongi banatuak. Aitzitik, hizkuntzen edo hizkuntza-barietateen bizikidetza dinamikoa da. *Barbaro*en hizkuntza gaitzetsia, adibidez, botere betearazlea indarrez hartu ondoan, prestigioduna bilaka daiteke *goi-barietate* berria izatera heldu arte.

Fishmanen diglosia

Urte batzuk berantago Joshua A. Fishmanek Fergusonen kontzeptua bereganatu zuen diglosia nozioaren eremua hedatuz *Bilingualism with and without diglossia: Diglossia with and without bilin-*

gualism artikuluan (1972: 91-106). Alde batetik, elebitasuna, portaera indibiduala psikolinguistikari lotua dena, eta bestetik, diglosia, gizarte-fenomenoa dena, bereizi ditu. Diglosia bi hizkuntza edo hizkuntza-barietate baino gehiagorekin gerta daitekeela adierazi zuen.

Fishmanen ustez, diglosiarik gabe, esan nahi baita hizkuntza-funtzioen banaketarik gabe, orekatutako elebitasun sozial egonkorra ezinezkoa da (*stable balanced bilinguism*). Izan ere, norbanako elebidun orekatuak sortzen dituen gizarteak bi hizkuntzetatik bat bazter utziko du, funtzio-multzo batentzat eta berarentzat bi hizkuntza behar ez dituelako. Mackeyk ere esaten zuen komunitate elebidun independenteak ez duela elebiduna izateko arrazoirik (Mackey, 1976: 372).

Fishmanek honako sailkapena proposatu du elebitasun eta diglosia nozioen arteko erlazioak argitzeko (Fishman, 1972: 91-106):

ELEBITASUNA	DIGLOSIA
1. + Elebitasuna + Diglosia	2. + Elebitasuna – Diglosia
3. + Diglosia – Elebitasuna	4. – Diglosia – Elebitasuna

6. taula: elebitasun eta diglosia nozioen arteko erlazioak (Fishman, 1972).

- **Elebitasuna eta diglosia**. Hizkuntza-egoera honetan hizkuntza-komunitateko lagunak, kasik denak, elebidun izan behar dira. Fishmanek Fergusonen adibidea errepikatzen du, aleman estandarra eta tokiko alemana Suitza alemanean. Herri kasuak bakan direla azpimarratzen du, adibidetzat Paraguai jarriz, gaztelania eta guaraniarekin.
- **Elebitasuna diglosiarik gabe**. Estatu Batuetako immigranteen kasua da, ingelesa ikasten dutelarik beren jatorrizko hizkuntza gordez belaunaldi batez edo gehiagoz. Immigrazio elebitasunak egoera-espektro biziki desberdina erakusten du, norbanakoarengandik talde immigratzaile osora heda daitekeelako. Elebitasuna diglosiarik gabe egoera aski iragankorra da Fishmanen ustez, funtzio nagusiak betetzen dituen hizkuntzak bestea ordezka dezakeelako, immigrazioaren kasuan harrera-herriko hizkuntzak, hain zuzen (1972: 105).
- **Diglosia elebitasunik gabe**. Garatu gabeko herrietan aurki daiteke egoera hori, non nekazaritza-eremuko biztanleria elebakarra den eta kolonizazio-hizkuntza ofiziala.
- **Elebitasunik eta diglosiarik ez**. Kasu hori aski teorikoa da; komunitate txiki eta isolatuena litzateke. Amazonian, adibidez, ezagun da holakorik badela oraino.

Orotara sailkapen hori aski artifizial eta determinista da, baina, halere, egoeren dibertsitatea hobeki ulertzen laguntzen du.

Diglosia kontzeptuaren kritika

Era orokorragoan, Fergusonenarekin gertatu zen bezala, Fishmanen diglosia nozioa ere kritikatua izan da. Kreolerekin lan egiten zuten ikertzaileek eta soziolinguista katalanek bereziki agertu dute desadostasuna. Diglosia-egoerek sortzen zituzten gatazkak txikiesten zituela estimatzen zuten.

Bestalde, diglosia dinamikoa da eta behe-barietate batzuen patua goi-barietate bilakatzea da. Hori argi da hizkuntza erromantzeekin latinaren parean (gaztelania, frantsesa, italiera…); latina behe-barietate bilakatu ez bada ere, betetzen zituen funtzio askotatik baztertua izan da.

Beste soziolinguista batzuek azpimarratu dute diglosiaren definizio horiek mekanizistak, deterministak zirela, batzuetan solaskideen askatasun banda handiagoa zela hizkuntza hautatzeko unean.

Oro har, halere, elebitasunaren eta diglosiaren arteko bereizketa baliagarria da soziolinguistikan

Elebitasuna vs. diglosia

Elebitasuna banako nolakotasuna da; bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da.
Elebitasun-mota asko badaude: hizkuntza-jabetzearen araberakoak (lehen hizkuntza, bigarren hizkuntza), hizkuntzen jabetze-ereduaren araberakoak (familian, eskolan, autoikaskuntzaren, zuzeneko esperientziaren bidez), hizkuntza-gaitasunen araberakoak, etab.

Diglosia edo elebitasun soziala gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-barietate desberdinen erabiltzea da. Hizkuntza edo barietate horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira; bata funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, ikus-entzunezko hedabideak...) eta bestea informal eta pribatuetarako (familia, lagunartea).

Maizenik egoera diglosikoa desorekatua da funtzio horien banaketa bidezkoa ez delako. Gainera egoera diglosikoa dinamikoa da, hizkuntza batek, menderatzaileak, hain zuzen, bestearen funtzio eta erabilera-eremu berri batzuk bereganatzen dituelako denboran zehar.

Txepetxek, diglosia kontzeptua onartuz, hiru diglosia-maila proposatu ditu (1987: 346-347):

1. *Erdi-diglosia*, Fergusonen arabiera klasikoa eta herri-arabiera adibideari lotzen dena.
2. *Diglosia partziala* edo *funtzionala*, Belgikan edo Danimarka eta Alemania artean gertatzen dena, non hizkuntza batek funtzio guztiak ez baditu ere, mugako beste aldean denak dituen.
3. *Diglosia totala* edo *lurraldekoa* da, Euskal Herrikoa, adibidez, non euskarak funtzio guztiak ez dituen baina erdarak bai, euskararen lurraldean eta kanpoan ere bai.

Azken hau diglosia glotofagikoa (*diglosia glotofágica*) deitu du, bere prozesuaren bukaera herri-

hizkuntzaren desagerpena delako. Hizkuntza menderatzaileak egindako presioaren eraginez, hizkuntza menderatua desagertzeraino iristen da.

Hizkuntza-ukipenaz Euskal Herrian bi hitz. Euskara eta diglosia: euskalkiak, euskara batua eta erdara

Euskararen kasuan, Euskal Herriko lurralde, gune batzuetan Fergusonen araberako *diglosia* adibidea daukagula esan daiteke. Hori gerta daiteke bi euskara desberdinen arteko elkarbizitzan bata goi-barietate bezala erabilia bada eta bestea behe-barietate bezala. **Euskara batua** eta **euskalki** baten kasua izan daiteke, euskara batu hori ikasi ez duten euskaldun zahar batzuentzat. Euskara batua da euskararen barietate estandarra, euskalkietako hainbat elementu bateratuz Euskaltzaindiak proposatu eta arautua duena XX. mendean zehar. Euskalkiak, berriz, euskararen dialektoak dira (ikus 2. atala).

Baina egoera hori aski teorikoa da euskaldun guztiek gaztelania edota frantsesa **erdarak** ongi dakizkitelako. Euskal Herriko lurralde osoan egoera ez da berdina, eta badakigu lurralde zenbaitetan euskaldun zahar horiek euskara batua ulertzeko arazoak dituztela. Hori gerta daiteke aitona-amona, guraso eta haurren arteko harremanetan, haurrek eskolan euskara batua ikasten dutenean.

Zuberoan, adibide gisa, egoera diglosikoa Fishmanen adieran da eta ez Fergusonenean, zubereraren eta frantsesaren artekoa, biarnesa, aski galdua delako. Euskara batua sartzen baldin bada ere, bereziki lexikoa emendatuz, ezin da esan egiazko goi-barietatea denik. Frantsesa da funtzio hori betetzen duena.

Euskal Herrian euskarak funtzio guztiak inon betetzen ez baititu *erabateko diglosia* dagoela esan daiteke (gaztelaniaz *diglosia total*, frantsesez *diglossie totale*). Lurralde osoan egoera diglosikoa da, berdin-berdina ez izanik ere Euskadin, Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian.

Ildo berean, *noranzko bakarreko elebitasuna dagoela* esaten dute (gaztelaniaz *bilingüismo unidireccional*, *unilateral*, frantsesez *bilinguisme unidirectionnel*, *unilatéral*), euskaldunak erdara ikastera behartuak izan direlako eta erdaldunak euskara ikastera, aldiz, ez. Aldiz, garai batean Euskal Herriko gune batzuetan bizitzeko, euskara ikastea beharrezkoa zen.

Euskara, gaztelania eta frantsesa **ukipen-hizkuntzak** dira. Baina euskara **gutxiengoaren hizkuntza** bilakatu da denborarekin; gaztelania edo frantsesa, aldiz, kanpotik etorri izanik ere, **gehiengoaren hizkuntza**k bilakatu dira, funtzio eta esparru formalez gain, funtzio eta esparru informalak bereganatuz euskaldunek euskara galtzen zuten neurrian.

3.3.2. Hizkuntza-funtzio sozialak

Hizkuntzak gizarte jakin batean errealitatea eraikitzeko, komunikatzeko edo balio sinbolikoa bideratzeko funtzio-multzoa dauka. Hizkuntza-funtzio sozial horiek, hizkuntza bera bezala, hizkuntza-komunitateen arabera aldatzen dira.

Funtzioen zerrenda

Funtzioez hitz egitean, atal honetan ez zaie *funtzionalistek* egindako banaketari begiratuko, hau da, komunikazio-egoera bakoitzean hiztunaren helburu komunikatiboei begira egiten den banaketari (ikus adibidez Roman Jakobson, *Closing statements: Linguistics and Poetics*, 1960). Gizartean hizkuntzak dituen funtzio horiek bere estatusarekin ikustea izango da helburua, esan nahi baita gizarte jakin batean, egitura sozial jakin batean, hizkuntza horrek duen lekua, posizioa (hizkuntzaren estatusari buruz ikus 3.4.2 lerroaldean eta 5. atalean).

Fergusonek zazpi funtzio bereizten zituen: *nazioartekoa, ofiziala*, *komunikazio-hizkuntza* (ingelesez *vehicular*), *taldekoia (gregarioa), eskolatze-hizkuntza, eskola-ikasgaia, erlijiozkoa*; baina hiru hizkuntza-kategoria ere bereizten zituen: *nagusiak*, *txikiak* eta *aparteko estatusekoak*. Eta bost hizkuntza-mota: *bernakularrak*, *estandarrak*, *klasikoak*, *pidginak*, *kreolerak*.

William Stewart-ek (1968) Fergusonenei hiru funtzio emendatu zizkien 1968an: *hiriburukoa*, *probintziala* eta *literarioa* (*capital*, *provincial*, *literary)*.

1984an Ralph Fasold-ek, aurrekoen lana baliatuz, zazpi funtzio definitu zituen atributu soziolinguistiko-sorta baten bidez: *ofiziala*, *nazionala*, *taldekoa*, *komunikaziokoa*, *nazioartekoa, eskolakoa* eta *erlijiozkoa* (*The sociolinguistics of society*).

Txepetxek ere zazpi funtzio horiek proposatu zituen hizkuntzen ezaugarriak definituz (Sánchez Carrión, 1987: 75): *nazioarteko hizkuntza*, *zibilizazio-hizkuntza* edo *kultura-hizkuntza*, *hizkuntza nazionala*, *tokiko hizkuntza*, *lan-hizkuntza*, *familia-hizkuntza*, *nortasun-hizkuntza* (*identidad o lengua de pensamiento*). Azken biak jabetze naturalaren mendean daude (*adquisición natural*); lehen biak, aldiz, bigarren ikaskuntzaren mendean (*aprendizaje secundario*).

Robert Cooper-ek aurkeztu zuen sailkapenean Stewarten *ofizial* kalifikatzailea hiru motatan bereizi zuen: hizkuntza ofiziala, lanekoa eta sinbolikoa (*statutory*, *working* eta *symbolic*) (1989: 99). Gainera beste bi funtzio gehitu ditu, mass media eta lan-funtzioak (*mass media, work functions*) (*ibid.*: 118).

Funtzio batak bestea estal dezake edo osa dezake, irizpide definitzaileak ez direlako berdin-berdinak adituen arabera.

Funtzioen adibideak: euskara eta beste hizkuntzak

Nazioartekoa

Herri askotako eliteek, kargudunek, erabiliak dira nazioarteko maila eskuratzen duten hizkuntzak. Hizkuntzaren hedapenaren faktoreak aztertuz ikusiko da zergatik hizkuntza bat nazioarteko hizkuntza bilakatzen den (3.4.3.). Europan latina eta ingelesa dira ezagunenak. K.a. III. mendean latina baserritar tribu txiki bateko hizkuntza zen, Erroma inguruko Latium eskualdekoa, etruskoen menpean zegoena. Orduan nazioarteko hizkuntza persiera bazen ere, hizkuntza xume hura Erromatar Inperio zabaleko hizkuntza bilakatu zen.

Halere, konkista militarrak ez du beti konkistatzaileen hizkuntza inposatzen. Erdi Aroan Eskandinaviatik jaitsi ziren normandiarrek Frantziako erreinu zati bat bereganatu zuten, eta frantsesa ere bai. Ondoren, hizkuntza hori inposatu zuten Ingalaterran, eta beraien jatorrizkoa galdu zuten.

Nazioarteko funtzioarekin batera, produkzio kulturalak, informazioa, ideiak, ohiturak, etab. leku askotara iristen dira. Horrek ere nazioarteko hizkuntza horren hedadura eta eragina indartzen ditu.

Ofiziala

Ofizialtasunak herritarrei izendapen hori eskuratu duen hizkuntza erabiltzeko hainbat eskubide aitortzen die; baina estatus hori oso ezberdina da herri bakoitzean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak dio: *Euskal Herriko Autonomia Elkartearen hizkuntza-ofizialak euskara eta gaztelania dira*. Nafarroako Foru Komunitatearen 1982ko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeak dio: *1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan*. Bi erkidegoetan euskara hizkuntza ofiziala da, baina era ezberdinean (ikus 5. atala).

Herri batzuetan, elebitasun ofiziala indarrean da ez bi hizkuntzen erabilera bultzatzeko, baina bai elebakartasun indibiduala eta hizkuntza-komunitateen nortasuna zaintzeko. Belgikan, adibidez, hiztunek, oro har, ez dituzte herriko beste hizkuntza ofizialak ikasten. Hiru hizkuntzak, frantsesa, nederlandera eta alemanera, estatuko lurralde-eremuaren zati batean baino ez dira ofizialak. Beste hizkuntza batzuk, ordea, lurralde osoan dira ofizialak, hala nola, ingelesa eta gaelikoa Irlandan edo luxenburgera, frantsesa eta alemanera Luxenburgon.

Nazionala

Ofiziala eta nazionala ez dira kalifikatzaile sinonimoak. Estatus ofizialak herritarrei eskubideak aitortzen dizkie; nazional izendapenak, berriz, lurralde jakin batean bizi diren pertsonen berezko nortasunaren ezaugarri dela aitortzen dio hizkuntzari.

Deskolonizazioaren ondorioz, Afrikako, Hego Amerikako eta Asiako herri gazteek hizkuntza-plangintza honako arazo kezkagarria dute: zein nazio-hizkuntza hautatu? Zein hizkuntza administraziorako edota irakaskuntzarako? Kolonizatzaile ohiena (ingelesa, gaztelania, frantsesa…)? Tokiko hizkuntzetako bat? Baina, zein? Erabiliena?

Oro har, estatu kolonizatzailearena hartu izan dute, baina ez beti. Indonesian, adibidez, hizkuntza ofiziala eta nazionala indonesiera da, hizkuntza austronesikoa den malaysiararen aldaera. Kolonizatzaileen nederlandera kasik desagertua da orain.

Hiriburukoa

Stewarten sailkapenean funtzio horrek (*capital*) ez du ofizialtasunarekin ikustekorik. Hizkuntza hori hizkuntza nagusia da nazio-hiriburuan, komunikazio-hizkuntza. Zentro politiko eta ekonomikotik hiri-aldirira hedatzen da.

Probintziala

Stewarten sailkapenean hizkuntza probintzial bat ofiziala da lurralde jakin batean, euskara bezala Euskal Autonomia Erkidegoan.

Tokikoa

Tokiko izatea da sailkapen honetako maila geografiko apalena. Tokiko hizkuntza eta **berezko hizkuntza** esapideak ez dira sinonimo. Azken hori lurralde batek historikoki berezkoa duen hizkuntza da. Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, inguruan dituen hizkuntza indoeuroparrak geroago heldu direlako lurralde honetara, eta probintziala, Euskal Autonomia Erkidegoan bederen. Iparraldean, aldiz, berezkoa da, baina tokikoa baizik ez da.

Zibilizazio-hizkuntza

Munduko zibilizazio-mota batean nagusi den hizkuntza. K.a IV. mendean finkatu zen hizkuntza greko batua (*koine*), heleniar zibilizazioari lotua da; ingelesa, berriz, gaur egungo mendebaldeko zibilizazioari lotu zaio.

Kultura-hizkuntza

Kultura-adierazpenak sortzeko eta zabaltzeko gai den hizkuntzen funtzioa da. Kalifikatzaile hori konnotatua izan daiteke. Goi-mailako kulturak eta behe-mailakoak liratekeela ulertaraziko luke hizkuntza-funtzio horrek.

Hizkuntza bakoitzak kontzeptu, irudikapen, balio multzo bat dauka errealitatea ulertzeko. Hots, hizkuntza bat kultura bati lotua zaio. Norbanakoaren kontzeptu-kategoriak kulturari lotuak zaizkio eta denbora eta espazioarekin aldatzen dira. Balio-judizio bat da.

Gaur egungo munduan, kulturalki autosufiziente izatea garrantzitsua da hizkuntza-komunitateentzat, hiztunak autoestimua izateko, bere hizkuntzaz pertzepzio positiboa izan dezan eremu kulturaletan (prentsa, irrati-telebista, liburuak, zinema, zerbitzu kulturalak...).

Literarioa

Munduan zehar zenbait hizkuntza idazketarik gabekoak dira oraino, ez daukate ortografiarik. Besteak literatura sortzeko gai dira. Sarritan, funtzio horrek literaturan erabiltzeko moduko erregistro landua duen hizkuntza dela adierazten du. Beraz, apreziazio-gradua daukagu *literatura-hizkuntza* esapide horretan ere, *zibilizazio-* eta *kultura-hizkuntza* izendapenetan bezala.

Euskarazko literaturak heldutasun-maila eskuratu du eta euskara hizkuntza literarioa bilakatu dela esan dezakegu. Baina bere prestigioa munduko literaturan ez da latinak, grekoak, gaztelaniak, frantsesak, ingelesak edo errusierak eskuratu dutena.

Komunikazio-hizkuntza

3.2.4. Ierroaldean ikusi dugu hizkuntza desberdinak zituzten gizabanakoek eta hiztun-taldeek elkar ulertzeko komunikazio-hizkuntza batzuk sortu dituztela, pidginak, hain zuzen. Baina nazioartekoak izan gabe, xede horrekin sortuak izan gabe, hizkuntza batzuk hauta daitezke elkar ulertzeko. Hizkuntza horiek *komunikazio-hizkuntzak* bilakatzen dira (*lengua vehicular* gaztelaniaz,

langue véhiculaire frantsesez, *lingua franca* ingelesez).

Hego Amerikan XVI. mendean, adibidez, Andeetan misiolari espainiarrek kitxua, Inka estatuaren hizkuntza, eta aimara erabiltzen zituzten komunikazio-hizkuntza gisa, beren ebanjelizazio-lanean. Gaztelaniak funtzio hori geroago eskuratu du.

Halere, modu zabalagoan, hizkuntza komunikatzeko erabiltzen den edozein kasutan ere erabiltzen da izendapen hori. Irakaskuntzan, adibidez, jakintza transmititzeko irakasle eta ikasleek duten hizkuntzaren kasuan (ikus beherago *eskolatze-hizkuntza*).

Taldekoa

Stewarten sailkapenean talde kultural edo etniko batek, tribu batek, adibidez, komunikazio-tresna normal gisa erabiltzen duen hizkuntza da.

Eskolatze-hizkuntza

Irakaskuntzan, ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan jakintza transmititzeko erabiltzen den hizkuntza. Euskal Herriko irakaskuntzan euskara B eta D ereduetan eskolatze-hizkuntza da. B eredua eredu elebiduna da, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez ematen da. D eredua murgiltze-eredua da, euskaraz irakasten da.

Eskola-ikasgaia

Hizkuntza ikas-programako ikasgaia da bakarrik, euskara A ereduan bezala. Eredu horretan irakaskuntza gaztelaniaz edo frantsesez da eta euskara irakasgai bat besterik ez da.

Erlijiozkoa

3.4.3. atalean ikusiko dugu hizkuntza batzuk erlijioari lotuak direla eta erlijioari esker hizkuntza horiek hedatu egin direla; arabiera islamari, hebreera judaismoari eta latina katolizismoari esker, besteak beste. Era batez, erlijioek hizkuntza horiek aterpetu dituzte, erlijiozko funtzioa beraientzat kontserbatuz, bederen.

Baina erlijioak garrantzi handia izan du hizkuntza gutxitu batzuk aterpetzeko ere, jakinez erlijiozko funtzioa goi-mailako funtzioa zela Fergusonen hitzetan. Euskararen kasua izan da mende askotan, apaizek eta elizgizonek euskara baliatu dutelako latinarekin batera. Kristau-ikasbidea euskaraz irakasten zuten. Gehiago ere, euskara ikertu eta landu egin dute. XX. mendea arte euskarazko idazki gehienak erlijiozkoak ziren, testu sakratuen itzulpenak bereziki (Ebanjelioa, Bibliako Itun Zaharra eta Berria, besteak beste).

Bestalde, misiolariek kristau ez diren herrialdeetan ebanjelio-aldarrikapena tokiko hizkuntzetan egin zuten. Horretarako hizkuntza horiek ikasi eta sarritan lehen deskribaketak eta gramatikak idatzi zituzten.

Lan-hizkuntza

Lanean erabiltzen den hizkuntza da, laneko komunikazioa bideratzeko gaitasuna duena. Funtzio hori garrantzitsua da gaur egun. Ingelesak funtzio hori bereganatu du eta horrek munduan zehar hedatzen lagundu dio.

Funtzio horrek lexiko teknikoak inplikatzen ditu. Gainera, prestigiozko funtzioa dauka hizkuntzak, gora egiteko baliatzen delako.

Familia-hizkuntza

Etxean ez ezik, familia-giroan senitartekoekin hitz egiten den hizkuntza da. Funtzio hori garrantzitsuenetatik bat da, garrantzitsuena ez bada, hizkuntza gutxituen kasuan bereziki Fishmanen Belaunaldien Arteko Etenaren Neurria eskalako 6. gradua da (1991, 2001). Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza da normalean, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den hizkuntza. Mendez mendeko euskararen transmisioa oroitaraz dezagun, beraz, bere jarraipena segurtatu duena.

Nortasun-hizkuntza

Jakina da umeak bere nortasuna hizkuntzaren bitartez garatzen duela. Gizarte-talde eta norbanako bakoitzak ere hizkuntza jakin batekin (gehiagorekin elebidun edo eleaniztunen kasuan) lotzen du bere identitatea.

Zergatik ez oroitarazi **euskaldun**ek beren hizkuntza, **euskara** hain zuzen, nortasun-hizkuntzatzat hartu dutela hizkuntzarekin beren burua izendatuz eta halaber beraien herria **Euskal Herria**. Taldeek euren kideak eta besteak izendatzeko modua dute, *euskaldun* eta *erdaldun* izenak horren adibide.

Hizkuntza bakoitzaren funtzioen elkarbizitza

Esan bezala, Fishmanen ustez elebitasun soziala, beraz diglosia, fenomeno egonkortua izan daiteke bi hizkuntzen artean diferentziazio funtzionala baldin badago. Beraz, kontaktuan diren bi edo hiru hizkuntzen funtzioak banatuak izan behar dira. Funtzio horiek banaketa osagarrian izan behar dira.

Eginkizunak bereizi ezean, osagarrizko baliorekin, bi hizkuntzetatik batek, edo barietate batek hizkuntza bakarraren kasuan, bestea mugituko du, rolen eta balioak nahasi eta fusionatu direlako.

Gizarte jakin batean hiztunak elebidun orekatuak balira egoera guztietan, komunitatearen elebitasun hori desagertu egingo litzateke; izan ere, gizarterik ez da bi hizkuntza behar duenik funtzio multzo bakar batentzat.

Baina elebitasun soziala edo diglosia ez da beti istilurik gabeko harreman-egoera, aitzitik ere.

3.3.3. Hizkuntza–gatazka

Gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direnean lehian dira, ez dituzten funtzioak berenganatzeko edo dituztenak begiratzeko eta indartzeko. Soziolinguista batzuk **hizkuntza-gatazka**z mintzatzen dira, zenbaitek gerraren irudia erabiltzen dute (ikus adibidez Calvet 1987, Toni Mollà 2002). Hizkuntzen existentziagatiko borroka ere aipatu da.

Hizkuntza-gatazkaren jatorri-puntua elebitasun soziala da;, diglosia, beraz. Mundu elebakarrak

ez luke horrelako gatazkarik ezagutuko, baina horrelako mundua ilusioa baizik ez da. Eleaniztasuna da errealitatea, gizarteen aberastasun kultural handienetatik bat. Gizakiak eta botereek ez dute ezberdintasuna ongi onartzen (Calvet 1987: 76); munduko historiak hizkuntza-desberdintasuna ez onartzearen adibide asko eman dizkigu. Euskaldunek pairatu dituzten adibide ugariak aurki ditzakegu Torrealdaik idatzitako *El libro Negro del Euskera* liburuan (1998).

Mundu eleaniztuna gatazka zabalen eremua da, tentsio iraunkorrena, gehiengoaren hizkuntzaren eta gutxiengoarenaren artekoa, boterearen hizkuntzaren eta hizkuntza gutxituaren artekoa edota bihotzeko hizkuntzaren eta ogikoaren artekoa.

Hizkuntza-gatazka modeloak **ikuspegi diakronikoa** hartzen du; modelo diglosikoa, aldiz, sinkronikoa da bereziki. Batzuetan hamarkada batzuk behar dira hizkuntza baten desagerpen- prozesuaz ohartzeko, zenbaitetan mende batzuk (Boyer: 53). Hizkuntza menderatzaileak egindako presioaren eraginez, hizkuntza menderatua desagertzeraino iristen da.

Hizkuntza-gatazka: bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzea eta, ondorioz, besteari nolabait kentzea da lehia horren funtsa.

Hizkuntza-normalizazio nozioa. Normalizazioa ordezkapenaren aurrean

Hizkuntza-normalizazio nozioa minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik ateratzea adierazteko erabilia da. Minorizazioak hizkuntza hori gizarte-esparru eta funtzio batzuetatik baztertzen du. Normalizazio prozesuaren bidez, hizkuntzak esparru eta funtzio horiek eskuratzen ditu.

Hizkuntza-normalizazioa: minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia.

3.1.1. lerroaldean ikusi dugu nola Txepetxek elebidunak sailkatzen zituen lehen ikaskuntza- eta bigarren ikaskuntza-ereduaren arabera. A ikaskuntza, naturala, etxean, familian haurtzaroan egiten dena da; B ikaskuntza bigarrena edo kulturala da, eskolan edo autoikaskuntzaz egiten dena. Irizpide bera aplikatuz, Txepetxek hizkuntzak ere sailkatu zituen, une jakin batean zein egoeratan dauden azaltzeko: AB hizkuntzak naturalki eta kulturalki transmititzen direnak (gaztelania edo ingelesa, adibidez), A hizkuntzak soilik transmisio naturala dutenak (idazten ez diren hizkuntzak), B hizkuntzak soilik transmisio kulturala dutenak (latina, grekoa...) eta mintzatzen ez direnak, galdu direnak, beraz.

Bere teorian, normalizazioaren helburua hizkuntzaren garapen osoa lortzea da; euskararen kasuan AB hizkuntza izatea da, funtzio natural eta kultural guztiak betetzen dituen hizkuntza izatea, garaian garaiko funtzio guztiak bete ahal izateko. Beraz, gaur egun informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako hizkuntza egokia izatea, adibidez.

Soziolinguista batzuen ustez, gatazka hizkuntza-ukipenaren ezaugarri definitzaileetatik bat da. Mollà soziolinguista katalanak honakoa dio: *Hizkuntza-komunitate gehienak gatazka egoeran daude beste batzuekin, fenomeno horrek aldaketa linguistikoak eragiten ditu (hibridazioa), baita gizarte-esferan erabileretan ere (ordezkapena)* (Mollà, 2002: 58).

Ikusmolde horren arabera, hizkuntza-gatazka bi eraz burura daiteke: **normalizazioa**ren bidez, esan nahi baita gutxitua zen hizkuntza komunikazio-eremu eta une guztietan nagusitzen dela lurralde jakin horretan, edo **ordezkapena**ren bidez, esan nahi baita hizkuntza nagusiaren garaipen osoa. Hizkuntza-ordezkapen eta iraupen nozioak 3.4.2. lerroaldean azalduko ditugu.

Halere, Georg Kremnitz-en ustez, komunikazio-egoera elebakarren *normalizazio* ustea, hau da, elebakartasuna egoera *normala* dela pentsatzea, baztergarria da. Banako elebitasunari buruzko atalean esan bezala, hiztunak hizkuntza edo hizkuntza-barietate bat baino gehiago dauzka eta bere gaitasunak asimetrikoak dira. Hizkuntzen kasuan ere, simetria orokorra ezinezkoa litzateke.

Hizkuntza berri bat komunikazio-esparru batean sartzeak ez die automatikoki beste hizkuntzei esparru hori kentzen. Komunikazio-batura osoa emendatzen da zenbaitetan. Interneten kasua ezaguna da, eta ohartzen gara euskarak, hizkuntza gutxitua baldin bada ere, leku aski handia eskuratu duela esparru horretan, erregistro mugatu batean izanik ere.

Azkenean, Kremnitz bat dator *normalizazio* terminoa begiratzearekin, baina ez hizkuntza baten monopolioaren adieran, baizik eta komunikazio-egoera denetan hizkuntza horren erabilera aukeraren adieran bakarrik. Horrela, definizioak gaur egungo komunikazio-egoera konplexu eta osagarriak kontuan hartzen ditu (2003: 18-19).

Ildo berean, Txepetxen ustez, euskararen normalizazioa ez da euskara botere-hizkuntza bihurtzea, boterea gaur egun ulertzen den bezala patologia kaltegarria besterik ez baita (Zalbide; Erize, 2008: 95). Helburua bikoitza da; alde batetik, hizkuntza gutxituaren komunitatea trinkotzea eta, bestetik, gizartean eragina lortzea, hizkuntza nagusiaren hiztunak etsaitzat hartu gabe. Azken helburu hori hizkuntzei buruzko printzipio ideologiko batean oinarritzen da, hizkuntza-komunitateen berdintasun- printzipioan, hain zuzen ere. Berdintasun horrek lurralde horretan botere politiko inpartziala izatea dakar.

Iduri luke horrela litzatekeela Finlandian, adibidez, finlandieraren (suomiera) eta suedieraren kasuan, bederen. Suediera, suediera-hiztunak biztanleriaren % 5 izanik ere, ofiziala da finlandiera bezala. Erakunde publiko guztiak elebidunak dira, haur-eskolatik unibertsitatera. Suediera nahitaezkoa da Finlandia osoko eskoletan. Anna-Riitta Lindgren soziolinguista finlandiarraren arabera, elebitasun paralelo eta berdina eraiki dute Finlandian.

Hizkuntza-motak hizkuntza-gatazkaren modeloan

Pentsamendu-korronte honetan bereziki, baina soziolinguistika-teoria gehienetan ere bai, hainbat esapide erabiltzen dira ukipenean diren hizkuntzak izendatzeko: *gehiengoaren hizkuntza, gutxiengoaren hizkuntza* (*eremu urriko hizkuntza*), *hizkuntza menderatzaile*, *hizkuntza menderatu*, *hizkuntza gutxitu* (*mendeko hizkuntza*), *hizkuntza mehatxatu*...

Hona definizio batzuk, *gutxiengoaren hizkuntza* eta *hizkuntza gutxitu* nozioak bereizi beharko ditugula azpimarratuz.

Hizkuntza menderatzailea: hizkuntza-gatazkako egoeran, hizkuntza menderatuaren hainbat esparru eta funtzio irabazi dituenez, gailen agertzen den hizkuntza.

Hizkuntza gutxitua: hizkuntza-gatazka egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza.

Gutxiengoaren hizkuntza: hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean, gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntza.

Gehiengoaren hizkuntza: hizkuntza-ukipena bizi duen lurralde batean, hiztun gehienek erabiltzen duten hizkuntza.

Azken bi definizioak estatikoak eta neutroagoak dira, hiztun-kopuruak erkatzen dituzte bakarrik. Aldiz, lehen bietan ezegonkortasun dinamikoaren aurrean gaude, irabazteak eta galtzeak aldaketa suposatzen dutelako. Hizkuntza batek, gutxituak, erabilera-esparru eta funtzioak galdu ditu menderatzailearen mesedetan.

Halere, eta ildo berean, ohartu behar da erabilera-esparru berriak sor daitezkeela (teknologia berriak, inprimatze-teknika Erdi Aroan...). Horrelakoetan, hizkuntza menderatzaileak ez dio eremu berri hori gutxituari hartzen, beregaintzen baizik ez du. Kasu honetan ez dugu ordezkapenik, irabazte berri bat baizik.

Nozio horiek ukipenean diren hainbat hizkuntzari aplikatu zaizkie, berezko hizkuntza gutxituei bereziki, euskara, katalana, bretoiera, okzitaniera edo sardiniera bezalakoei.

Hizkuntza-gatazka ez da bakarrik linguistikoa

Fishmanen ildoan, Mollàk ohartarazten du, teorikoki, gatazkarik gabeko *elebitasun soziala*, gatazkarik gabeko diglosia, posible dela, hain zuzen diglosia orekatua (2002: 149). Kasu honetan botere sozial, ekonomiko eta politikoa, prestigioa, bidezkotasunean banatuak dira bi gizarte-taldeen artean, bi hizkuntza-komunitateen artean. Baina ohiko egoeran talde batek boterea dauka.

Mollàren ustez, hizkuntza-gatazka gainditzeko aterabide bakarra da hizkuntza-lurraldetasuna finkatzea (2002: 150); hizkuntza gizarte-egoera guztien erabilera-hizkuntza izatea, gizartearen bizitzako eremu publiko guztien hizkuntza. Mollàren esanetan *horrek beste hizkuntzaren itzulera inplikatzen du* (*ibid.*). Elebitasunaz eta diglosiaz hauxe da bere konklusioa: *Gizarte-erabilera elebidunaren faltsutasunak eta elebitasun indibidualaren aldebakarrekotasunak erakusten dute elebitasuna irreala, mitikoa dela* (2002: 159).

Munduan zehar hizkuntza gatazka-mota asko daude. Gehienetan gatazka ez da diglosikoa, linguistikoa, baizik eta politikoa, ekonomikoa, kulturala... Bi komunitateetatik batak bestearen mendekotasun politikotik libratu nahi du.

Hori zen Jugoslavia ohian Serbia eta Kroaziaren arteko kasua. Linguisten ustez, serbokroaziera hizkuntza bat baizik ez zen, nahiz maila tipologikoan, nahiz genetikoan. Baina kroaziarrek independentzia lortu nahi zuten eta hizkuntzak helburu horretan lagundu die. Serbian hizkuntza alfabeto zirilikoz idazten zen; Kroazian, berriz, latindarrez. Desberdintasun fonologiko, gramatikal eta bereziki lexikal batzuk ere baziren. Kroaziarren ustez, independentzia linguistikoak independentzia politikoa azkartu beharko zuen, batasun nazionalaren ezaugarrietatik bat berezko hizkuntza delako, nazio-nortasunarena.

Herriak nazio izatearen kontzientzia hartu eta estatu propioa eraikitzeko nahian hizkuntza propioa aldarrikatzeari **hizkuntza-nazionalismoa** dei dakioke. Horrelako hizkuntza-nazionalismoaren adibidea hizkuntza-leialtasunaren sailean sar daiteke, baina adiera zabalean; ez norbanakoak bere hizkuntza egoera guztietan erabiltzen duen hitzez hitzeko adieran.

Kasu horietan, ez dira hizkuntzak sortzen, kreolerekin gertatu bezala; ez dago hizkuntza-pizkunderik hebreerarekin bezala, baizik eta **hizkuntza-bereizketa**ren prozesua. Hizkuntza bat ala biren existitzea ez da arazo teknikoa soilik, baita irudikapen arazoa ere. Herritarrek beren hizkuntza propioa izan behar dutela deliberatu dute eta helburu horretara behar diren ahalbideak indarrean ematen dituzte.

Azkenean, hizkuntza-gatazka hizkuntzaren erabilera-eremu denetan ager daiteke. 3.4.1. lerroaldean, adibidez, ikusiko dugu familia ere hizkuntza-gatazkaren eremua izan daitekeela. Argi da hizkuntza-gatazka kasuak ez direla hizkuntza-arazo edo komunikazio-arazo hutsak. Soziolinguista ezagunen artean, Robert Cooper da, beharbada, hori ondoen azpimarratu eta esplikatu duena: helburuak kontsumitzaileen babesa, harreman zientifikoak, kontrol politikoa, garapen ekonomikoa, elite berrien sorkuntza edo ohikoak gordetzea, talde gutxituak baketzea edota nazio-askapenerako altxatzea izan daitezke, besteak beste, eta ez bi hizkuntza-komunitateren edo gehiagoren arteko komunikazioa hobetzea edo hizkuntza-arazoak konpontzea.

Hizkuntza–gatazkaren modelotik gora

Hizkuntza-gatazkaren modeloak hizkuntzen arteko harremanak ulertzeko tresna bat aurkezten du. Baina, era batez, ez oso egokia. Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke egin behar beste hizkuntz(ar)en kaltetan. Bestalde, estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren modeloa erreproduzituko litzateke berriro ere. Bestetik, eta nolanahi ere, hizkuntza-komunikazio bat beharrezkoa da hizkuntza-komunitate desberdinen artean.

Hizkuntzen arteko bizikidetza, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua. Diskurtso moralaz gain, planteamendu zientifikoa ere beharrezkoa da. Hau da **hizkuntzen ekologia** eraikitzen saiatzen dena (ikus 3.5. eta 5. atala).

3.3.4. Hizkuntza-aniztasuna

Hizkuntza-aniztasuna: eremu jakin batean, hainbat hizkuntza desberdin hitz egitea.

Hizkuntzalariek hiru hizkuntza-aniztasun mota bereizten dituzte. Batetik, munduan dauden hizkuntza-familien kopurua finkatzen eta aztertzen dute, jatorri beretik sortu diren hizkuntzak multzokatuz; aniztasun genetikoa deitzen dena dute aztergai. Bestetik, aniztasun tipologikoa aztertzen da, esan nahi baita munduko hizkuntzen egitura gramatikalean, fonologikoan, lexikoan, semantikan izan daitezkeen bariazioak eta inbarianteak, unibertsalak. Azkenik, munduan hitz egiten den hizkuntza-kopuruaz interesatzen dira, bere osotasunean eta lurraldeka, gizarte-taldeka, etab. Hau da hemen aztertu gabe aipatzen duguna.

Esan dugun bezala, hizkuntza-aniztasunarengatik eleaniztasuna biziki hedatua dago munduan zehar. Halere, politika kolonizatzaileek eta, ondotik, asimilatzaileek kalte handia egin diote hizkuntza-aniztasunari, eta azken hori murriztuz doa. Koïchiro Matsuura jaunak, UNESCOko zuzendariak, 2006an adierazi zuenaren arabera, oraingo 6.000 hizkuntza ingurutik erdia desagertuko da mende honetan.

Hizkuntzak mantentzeko eta bizirik iraunarazteko hiztun-kopurua garrantzitsua dela jakina da. Kopurua erabakigarria izateko muga 10.000 hiztunetan baldin bada, orduan munduko 6.000 hizkuntza horietarik % 59,4 galduko dira (3.564 hizkuntza) (Fèlix Martí eta beste, 2005: 101). % 30,1ek (1.806 hizkuntza) 1.000 hiztunetik behera dituzte (*ibid.*)

Hona, besteak beste, Calvet (1987: 52-58) frantses soziolinguistaren herri-eleaniztasunaren tipologia bat: hizkuntza nagusi bakarrekiko eleaniztasuna (Espainia, Frantzia), hizkuntza nagusi gutxitu batzuekiko eleaniztasuna (Magrebiera klasikoa eta frantsesa eremu formaletan arabiera dialektalaren eta berberearen aurrean), hizkuntza nagusi gutxituekiko eleaniztasuna (Afrikan frantsesa edo ingelesa tokiko hizkuntzen aurrean), txandakako hizkuntza nagusiekiko eleaniztasuna (*plurilinguisme à langues dominantes alternatives*, kreolera, lehen hizkuntza, eta europar hizkuntza), eskualdeetako hizkuntza nagusiekiko eleaniztasuna (Belgika, Suitza).

3.3.5. Hizkuntza-heriotza

Hizkuntza baten desagerpena ez da beti egiazko heriotza, transformazio prozesua paira dezakeelako edo, mintzatua izan gabe, hizkuntza idatzia egon daitekeelako. *Hizkuntza-heriotza* kausak hiru motatakoak izan daitezke.

1. Hizkuntzaren transformazioa

Fenomeno hori denbora bitarte baten buruan ohartzen da, aldaketa progresiboa baita. Latin arrunta hizkuntza erromanikoen oinarria da; arabiera klasikoak arabiera dialektal modernoak eman ditu denbora-epe laburrago baten buruan. Oro har hizkuntza denak aitzinean mintzatzen ziren hizkuntzen bilakaeraren ondorioak dira. Mintzatzen ez diren hizkuntza idatziak aparte dira, aldatzen ez direlako; usuenik erlijiozko hizkuntzak dira (latin klasikoa, arabiera klasikoa, sanskritoa…).

2. Hiztunen iraungipena

Hizkuntza galtzen da azken hiztunek, beraien hizkuntza belaunaldi berriei eman gabe, hitz egiteari uzten diotenean. Fenomeno hori aski azkar hedatu da. Bi astetan behin hizkuntza bat hil litekeela esaten da.

3. Hizkuntza-ordezkapena (ikus 3.4.2.)

Ordezkapen-prozesuaren bukaeran hizkuntza baten heriotza gerta daiteke. Hizkuntza menderatzaile batek hizkuntza menderatua ordezkatzen du. Iberiar penintsulan adibidez, erromanizazio aurretik hainbat tribuk egiten zuten hizkuntza, iberiera beste hizkuntza erromaniko batzuek ordezkatua izan zen.

Hizkuntza baten erregresio-indizea jatorrizko komunitatearen hizkuntzaz mintzatzen ez diren hiztunak kalkulatuz neur daiteke (*indice de régression* Calveten hitzetan, 1987: 147). Euskal Herrian, adibidez, indize hori 0,743 litzateke, biztanleen % 25,7 elebiduna delako 2006ko inkesta soziolinguistikaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2008). Baina erabileraren ehunekoa hartuko bagenu baxuagoa litzateke, zalantzarik gabe.

Hizkuntza–pizkundea

Hizkuntza berriak sortzeaz gainera, kreolerekin bezala, hizkuntza-bereizketaz gainera, serbokroazierarekin bezala**, hizkuntza-"pizkunde"** kasu bat maiz izaten da aipatua, hebreerarena. Hebrearren hizkuntza aitzina Palestinan hitz egiten zen, K.a. III. mendera arte. Baina aramera hizkuntzak baztertu egin zuen orduan. Zorionez, liturgia- eta literatura-hizkuntza gisa geratu zen eta XIX. mendetik aurrera berreskuratzeko mugimendua sortu zen. XX. mendean, yiddisha hizkuntza germaniarra baino hobetzat hartu izan da eta Palestinan bizi diren juduen eguneroko hizkuntza bilakatu da.

Nazionalismo azkarraren, hezkuntza-programaren eta eskolatze masiboaren bidez (haurtzaindegiak -1898-, bigarren mailako ikastetxeak -1906-), neologismoaren bidez (Hebraiera hizkuntzaren Akademia) hebreerak komunikatzeko eta balio sinbolikoa bideratzeko dituen gizartefuntzio guztiak eskuratu ditu, berreskuratu. 1900-1910eko hamarkadetan hebreera baizik ez zakiten lehen hiztunak agertu ziren, 1.700 urte geroago (Cooper, 1989: 13).

Hebreeraren berpiztea eta eguneroko hizkuntza izateko berreskuratzea hizkuntza-politiken garaipen handienetakotzat emana da.

3.4. HIZKUNTZA–HAUTAKETA, IRAUPENA, ORDEZKAPENA ETA ZABALKUNDEA

Beren baitan hizkuntzak berdinak dira, maila linguistikoan bederen, baina bi edo gehiago baldin badira gizarte batean betetzen dituzten funtzioak desberdinak dira. Eskema orokorra hau zela ikusi dugu: ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzetatik bata esparru eta une formaletan erabilia da, bestea informaletan, familian, lagunartean... Batak erabilera-esparru eta funtzioak irabazten ditu, besteak galdu. Prozesu diglosiko horrek eragin handia du hizkuntza-hautaketan, hizkuntzaren iraupenean eta ordezkapenean, hizkuntzaren zabalkundean.

3.4.1. Hizkuntzaren hautaketa

Komunikatu nahi duen egoera guztietan hiztunak erabiliko duen hizkuntza edo hizkuntza-aldaera hautatu behar du. Hori banako hautua da, interakzio-testuinguruko baldintzei lotua zaiena.

Baina gizarte-mailan ere hizkuntza-hautaketa egin behar da, lehen hizkuntza haurrari transmititzeko unean, etorkinak harrera-herrian integratu nahi duenean, eskola-sisteman ikasleak hizkuntzak ikasi behar dituenean, etab.

Halere, beti ez da hauturik egiten. Estatu-nazioek eredu elebakar eta asimilatzailea inposatu baitute azken bi mendeetan zehar, nazio-hizkuntza bakarra hedatzea ahalbidetu dute, hizkuntza horrek beste batzuk ordezkatzeko baldintzak sortuz.

XX. mendeko hirurogeiko hamarkada arte euskaldunek erdara, gaztelania edo frantsesa ikasi dute eskolan, nahi ala ez, inposatu egin zaielako. Orduan, hizkuntzaren hautaketarik ez zegoen.

Hizkuntza–hautaketa ez da (guztiz) librea. *Hizkuntza–merkatua*

1982an *Ce que parler veut dire* liburuan Pierre Bourdieu frantses soziologoak **hizkuntza-merkatu** nozioa azaldu zuen. Gizarte batean hizkuntza bateko barietateei aplikatzen zitzaien. *Merkatu ofiziala* indar-erlazioen eremua da, non gaitasun legitimoa dutenek legea egiten duten. Hizkuntza- eta kultura-kapitala dutenek beren boterea inposatzen dute eta etekina lortzen. Ikuspegi horrek klaseko menderapenarekin, produkzio-bideen jabetzearekin, hots, marxismoaren doktrina ekonomiko eta sozialarekin zuen zerikusia. Geroztik *hizkuntza-merkatua* nozio hori ukipenean diren hizkuntzei eta hizkuntza-hautaketari hedatu zaizkie (Boyer, 2001 eta Calvet, 2002, adibidez).

Oro har, hizkuntza-hautaketa ez da hain librea. Lehen hizkuntza edo ama-hizkuntzarekin hasiz, gurasoek hautatzen dute edo haurrei inposatzen diete. Hori oinarrizko datua da.

Bigarren hizkuntzaren kasuan, hizkuntza-merkatua indarrean da eta, ikusiko dugun bezala, lehen hizkuntzaren kasuan ere bai, oro har.

Hizkuntza-merkatua hizkuntzen arteko balio-sistema da, hizkuntzen erabiltzeko beharren arabera egituratzen dena. Euskal Herritik kanpo euskararen "balioa" txikia da; ingelesarena, aldiz, mundu osoan da handia. Bi balio-mota ditugu. Batetik, balio estetikoa, prestigiodun hizkuntzek, zibilizazio "handietako" hizkuntzek dutena; bestetik, balio praktikoa, laneko hizkuntzak edo enplegua eskuratzeko hizkuntzak, zientzia-hizkuntzak, etorkinentzako integrazio hizkuntzak, etab. Hizkuntza batzuen ezagutzak gainbalioa ekartzen du; beste batzuenak, berriz, ez du ondoriorik.

Adiera horretan, beraz, hizkuntza guztiek ez dute balio bera, eta ezberdintasun hori hizkuntzen mundu antolaketaren erdian dago (Calvet, 1999: 12).

Era batez, **eskaintza-eskariaren legea** indarrean da hizkuntzen artean: alde batetik, gizarte-eskaria eta, bestetik, hizkuntzen eskaintza, esan nahi baita hizkuntzek dauzkaten izan-gaitasun funtzionalak (ikus hizkuntza-funtzioak, 3.3.2.).

Ikasteko den hizkuntzaren edo diren hizkuntzen hautaketa, maiz, hizkuntza berdinen artean egiten dela esaten da. Askatasuna teorikoa da, baina praktikan indar-erlazioek bideratzen dute hautaketa. Hizkuntza-merkatua inposatzen da.

Lehen hizkuntza gurasoek inposatua da, beraz. Gero testuinguru soziolinguistikoak gidatzen gaitu, egoeren arabera, auzo-hizkuntza batera, edo eskualdeetako komunikazio-hizkuntza batera, edo botere-hizkuntza batera (estatuarena adibidez, aurretik inposatua ez bada), edo nazio-arteko hizkuntza nagusira, esan nahi baita ingelesera. Ildo honetan, ingelesa mundializazioaren hizkuntza bilakatu da, merkatu mundialaren hizkuntza.

Calveten ustez, hiztunek edo hizkuntza-komunitateek merkatuko legeari jarraitzen diote. Zenbaitek beren hizkuntza uzten dute, ez diete haurrei transmititzen. Ez da *ganibeta eztarrian* dutelako, baina bai beren interesa hor dela uste dutelako, edo beraien haurrena (2002: 212).

Portaera, kasu honetan hizkuntza-hautaketa, hiztunen eta hizkuntza-komunitateen irudikapen linguistikoetan eta gizarte-erlazioen analisi intuitiboetan oinarritzen da.

Hizkuntza-politikek hizkuntza-hautaketa horiek bidera edo desbidera ditzakete, baina hiztunen onespenarekin eta ez errudun sentiaraziz.

Lehen hizkuntzaren hautaketa

Calvetek, bere *La guerre des langues*-en "Familiako gerra" atalean, Bamakon (Mali) egin duen inkesta bat aipatzen du (1987: 98-99).

Familietan gurasoen lehen hizkuntza hedadura handiko eskualdeetako hizkuntza (peul, sonay) edo hizkuntza nazionala (bambara) baldin bada, inkestatuek hizkuntza hori lehen hizkuntza gisa zaintzen dute. Baina, gurasoen lehen hizkuntza Maliko beste hizkuntza bat bada, inkestatuetatik erdiek beste lehen hizkuntza daukate eta ez gurasoena. Familian bambara lehen hizkuntza gisa ez dutenak, denak, eleaniztunak dira, eta gehienak bambaraz mintzatzen dira.

Horrek erakusten du hizkuntza nagusia, bambara kasu honetan, bigarren hizkuntza gisa beharrezkoa bilakatu dela, era batez nahitaezkoa. Baina inkestak erakusten du bambara lehen hizkuntza gisa dutenek ez dutela beste hizkuntza afrikarrik ikasi beharrik ere.

Niameyen (Niger) Calvetek guraso bakoitzaren **ama-hizkuntza** aldagaitzat hartu du (1999: 100-101). Bikote mistoen kasuan, esan nahi baita aita-amen ama-hizkuntza desberdina denean, inkestatuen ama-hizkuntza Nigerko hizkuntza nagusia da nagusiki (zarma edo hauwsa).

Azkenean, ama-hizkuntzarik ez dela esan daiteke, haurtzaroan amaren hizkuntza ez baita beti transmititua. Bada, ordea, **lehen hizkuntza** (Calvet, *ibid.*: 101). Familia eleaniztunak ere hizkuntza-gatazkaren eremua dira, gizartean indarrean diren gatazken oihartzuna baitira.

Egoera hori **Euskal Herrian** ezaguna izan zen eta bada oraino. Bi gurasoek beren lehen hizkuntza bera izanik ere, euskara hain zuzen, beren haurrei ez diete beti ematen. Euskararen ondoren ikasi duten erdara, gaztelania edo frantsesa, beraientzat bigarren hizkuntza dena, haurren lehen hizkuntza bilakatzen da. Guraso horiek ez dute beraien gurasoek egin zuten **hizkuntza-hautaketa** egiten, haurren lehen hizkuntza euskaratik erdarara pasaraziz.

XX. mendearen erdian, berrogei-berrogeita hamarreko hamarkadetan, fenomeno hori indarrean zen Ipar Euskal Herrian. Aita-amek, euskaldun zahar izanik, haur gehienei euskara transmititzen zieten eta haiek ongi mintzatzen ziren. Ondoko haurrei ere euskaraz mintzatzen zitzaizkien, baina erantzunak frantsesez ziren. Haur gazteagoei ez zieten euskaraz egiten. Belaunaldi batez, belaunaldiz belaunaldi familian transmititu zen euskara bazter utzia izan da eta frantsesa ondoko belaunaldiko lehen hizkuntza bilakatu. Eskema orokor hori ez da Ipar Euskal Herriko eremu guztietan horrela gauzatu. Baserrian, Nafarroa Beherako ibar batzuetan bereziki, ez bide da hain azkar izan; Zuberoakoetan, aldiz, bai, Basabürüko ibar goietan salbu.

Hegoaldean ere, Espainiako Gerra Zibilaren ostetik 70eko hamarkadaren erdialdera arte, gutxi gorabehera transmisioa ia guztiz eten zen eta, ondorioz, belaunaldi osoak izan dira gurasoena ez zen beste ama-hizkuntza izan dutenak. Horien seme-alabak ikastoletan euskaldundu ziren, sarritan euskara ukatu izan zitzaien haiek bultzatutako ikastoletan. Belaunaldi galdua izan zen, nahiz eta askotan euskararen normalizazioaren alde modu ezberdinetan jardun, ez baitute hizkuntza jasotzeko aukerarik izan.

Halere, egungo guraso euskaldunek hizkuntza-leialtasun handiagoa dute. Ama hizkuntza euskara duten gurasoen familietan euskararen transmisioa eta erabilera-maila oso altua da. Txepetxen hitzetan *izateko nahia*, euskaldun izateko, euskara erabiltzeko nahia handiago litzateke.

Baina halere, eta oro har, **aukera kontziente bat** da gaur egun euskaraz bizitzea, euskara gutxiengo hizkuntza baita.

Immigrazioaren kasuan ere, herri batera bizitzera joan direnek herri horren hizkuntza nagusia, bertako hizkuntza nazionala ikasten dute, eurena usu bazter utziz goiz edo berant. Harrera-herriko hizkuntza integrazioaren, promozioaren, gizarte-prestigioaren eta familiatik kanpoko eredu nagusiaren araberako egokitasunaren hizkuntza da. Haurra elebakarra izanen da, eta bere lehen hizkuntza gurasoena.

Halere, besteak bezalakoa izan nahiaren (asimilazioa) eta jatorriarekiko leialtasunaren arteko tentsioak dualtasunaren onarpena ematen du. Orduan harrera-herriko hizkuntza irakasteaz gain, beren jatorrizko hizkuntza emanen diote haurrari. Haurra elebiduna izanen da.

3.4.2. Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena

Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena soziolinguistikako ikergaiak izan dira aspaldidanik: Weinrichen (1953: 106-101) *Language shifts* (hizkuntza-ordezkapenak), Fishmanen 1964ko *Language maintenance and language shift as a field of inquiry* (hizkuntza-jarraipena eta ordezkapena ikergai gisa).

Hirurogeiko hamarkadan jadanik, Fishmanen ikusmoldean, hizkuntzaren jarraipenaren edo ordezkapenaren hiru ikergai nagusiak honako hauek ziren:

- Ohiko hizkuntza-erabilera eta elebitasun-mailaren eta kokapenaren neurketa gizarte-alderdi erabakigarrien arabera.
- Prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak eta horien egonkortasunarekiko eta aldaketarekiko erlazioak ohiko hizkuntza-erabileran.
- Hizkuntza-portaera, jarrera, portaera kognitiboa eta ageriko portaera (García eta beste, 2006: 23).

Ikus daitekeenez, hirugarren gaia norbanakoaren ezaugarriei buruzkoa da. Eskuliburu honen hurrengo atalean aztertuko da.

Urtez urte gizarte-ekintza programa bat landu du Fishmanek hizkuntzen jarraipena segurtatzeko (1991, 2001, ikus 5. atala). Geroztik, beste soziolinguista batzuei esker, modelo teorikoak hobetu eta aberastu izan dira norabide horretan. Bi ikuspegiak, sinkronikoa eta diakronikoa, beharrezkoak dira jarraipena edo ordezkapena neurtzeko.

Hizkuntzaren jarraipenaren eta ordezkapenaren definizioa

Hizkuntzaren jarraipena (edo hizkuntza-iraupena): pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea eta, beraz, hizkuntza hori ez galtzea.

Hizkuntzaren ordezkapena: hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua. Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke.

Azken definizio hori norbanakoari edo hizkuntza-komunitateari aplika dakioke, hiztun batek edo komunitate batek bere hizkuntza uzten duenean eremu edo funtzio zenbaitetan beste bat erabiliz.

Lerroalde honetan, hizkuntza-iraupenaren eta ordezkapenaren arrazoiak azalduko dira, gizartearen, hizkuntza-komunitatearen edo taldearen baitan.

Ordezkapenaren etapak

Ordezkapena baino lehen diglosia edo elebitasun soziala izan behar da. Gurasoak beren amahizkuntza ez den hizkuntza transmititzeko, elebidunak izan behar dira. Bigarren hizkuntza horretaz duten ezagutza-maila ez da erabakigarria. Garrantzitsuena hizkuntza hori transmititzeko borondatea da, hizkuntza-integrazio nahia hizkuntza-komunitate berrian.

Arestian immigrazioa aipatu da, familiako hizkuntzaren ordezkapenaren arrazoi batzuk aztertuz. Helduen immigrazio kolektiboan, lau etapa nabarmendu ditzakegu jatorrizko hizkuntzaren ordezkapen osoa arte.

1. Immigratuek bigarren hizkuntza beren lehen hizkuntzaren bidez ikasten dute eta lanean eta eremu formaletan erabiltzen saiatzen dira.
2. Gero eta immigratu gehiago dira bi hizkuntzetan mintzatzeko gai, interferentziak emendatzen dira.
3. Elebidun-kopurua handiena da, interferentziak egonkortuak dira, baita erabilera-eremuen banaketa ere.
4. Bigarren hizkuntzak, esan nahi baita harrera-herriko hizkuntza, lehen hizkuntza ordezkatu du eremu guztietan eremu pribatu eta murriztuetan izan ezik. Interferentziak apaltzen dira.

Hizkuntzaren ordezkapen- eta galera-prozesua soziolinguistek deitu duten **akulturazioa**rekin batera doa, hiztunek jatorrizko ezaugarri kulturalak galdu eta beste kulturarenak hartzen dituztelako.

Era batez ere, testuinguru desberdinak kontuan hartuz, lau etapa horiek gutxiengoarena bilakatzen den jatorrizko hizkuntzari eta atzerriko hizkuntza menderatzaileari aplika dakizkieke, euskarari eta erdarari, adibidez.

Ordezkapen-prozesuaren bukaeran hizkuntza ordezkatuak zituen gizarte-esparru eta funtzio guztiak galtzen ditu.

Hizkuntza-ordezkapenaren prozesua azkarra izan daiteke, eta belaunaldi batez hizkuntza batetik beste batera pasatu. Hori da Euskal Herriko familia eta lurralde batzuetan gertatu dena, frantsesak edo gaztelaniak euskara ordezkatuz, baita Mendebaldeko Europako herri askotan eta, oro har, munduan zehar ere XX. mendean.

Baina prozesua luzea izan daiteke, hizkuntza bat emeki-emeki beste batean urtu edo desegiten denean. **Absortzioa** deitu dakieke prozesu horri eta bere ondorioei (Calvet, 1987: 142). Latinaren adibidea dugu berriz; izan ere, latin arruntak prozesu motel, luze eta konplexuaren bidez tokiko hizkuntzekin nahasiz hizkuntza erromanikoak eman ditu.

Hizkuntza gutxituen jarraipenaren edo ordezkapenaren eragile objektiboak eta subjektiboak

Hizkuntza gutxitu baten kasuan, ordezkapenarekiko **erresistentzia-indarrak** indibidualak dira, hala nola hizkuntza-leialtasuna (ikus 4. atala), eta baita kolektiboak ere, horien artean hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza (ikus 5. atala). Indibidualetan **belaunez belauneko** ama-hizkuntzaren **transmisioa** da hizkuntzaren jarraipenerako baldintza nagusia. Lehena gabe ez dago bigarrenik, hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioak ez duelako hizkuntzaren bizitza segurtatzen. Latina irakatsia zen Europan ikastetxetik kanpo erabili ez arren, elizan salbu.

Faktore demografikoa. Gutxi mintzatua izan den hizkuntza batek iraun dezake hiztunek beren hizkuntzaren jarraipena garrantzitsutzat hartzen baldin badute, nortasun edo erlijiozko arrazoiengatik adibidez, hiztun-kopuru txikiak aurreikusarazten ez zuen ere. Beraz, faktore demografikoa garrantzitsua izanik ere, ez da erabakigarria.

Halere, gutxiengoaren hizkuntza-komunitatearen tamainak haren hizkuntza-leialtasuna determina dezake eta masa kritikoa izan daiteke, bereziki gizarteak integrazio-ahalbide asko eskaintzen dituenean (Calvet, 1999: 196). Halaber, garrantzitsua izan daiteke hiztunen banaketa lurraldean zehar: bilduak ala sakabanatuak diren, jatorrizko lurraldean dauden ala ez...

Beraz, faktore demografikoa hiru zatitan bereiz daiteke: **hiztun-kopurua** aztertua den gizartean, **proportzioa** beste hizkuntzetako hiztunen aurrean eta **banaketa** edo distribuzioa lurralde horretan.

Etorkinen kasuan, bizileku egonkorra eta segregazio kulturala segurtatzen dituzten komunitateek baino ezin diote beraien hizkuntza eutsi belaunaldi batetik gora Fishmanen ustez (García eta beste, 2006: 100). Bestelakoetan hizkuntza-komunitatea desegituratu egiten da.

Kontrol edo babes instituzionala. Hizkuntza gutxituen kasuan, adibidez euskararenean, sostengu instituzionala beharrezkoa da gutxitze prozesua geldiarazteko, hizkuntzak bereak dituen erabilera-esparru eta funtzioak zaindu eta berriak eskura ditzan. Sostengu instituzionala ez da bakarrik erakunde politikoena, estatua edo lurraldea gobernatzen dutenena. Babesa, eremu formal guztietan gauza daiteke: ekonomian, hezkuntzan, administrazioan, mass-medietan, kulturan, etab.

Ikuspuntu horretatik, komunitate euskaldunaren kontrola handiagoa da Euskadin Nafarroan baino. Ipar Euskal Herrian, aldiz, komunitate euskaldunak ez dauka kontrolik, baina bai sostengu instituzional txikia, duela hogei urte ez zuena, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin 2004an.

Hizkuntza gutxitua duen komunitateak hobe du kontrol instituzionala eskuratzea, hizkuntza menderatzailea duen komunitatearen babesa baino.

Hizkuntzaren estatusa. Gizarte jakin batean hizkuntzak beste hizkuntzen aldean duen lekua edo posizioa ere garrantzitsua da. Estatus hori estatus sozioekonomikoan, estatus soziologikoan, prestigio soziokulturalean eta abarretan sailka daiteke (estatus nozioa 5. atalean azalduko da).

Faktore bakoitzaren neurria handia, ertaina edo txikia izan daiteke, eta horrela, hizkuntzaren jarraipenaren edo ordezkapenaren faktore objektiboak neur daitezke.

Euskararen kasuan, hain denbora luzean bizirik irauteko, jarraipenaren aldeko faktoreak aski positiboak izan dira historian zehar, nahiz eta estatus, demografia eta sostengu instituzionaleko irizpideak ongi bete ez. Lehena etengabeko familia-transmisioa izan zen. Halere, arestian esan bezala, bizi-baldintzak oso aldatu dira, eta hizkuntzentzat ere bai; euskararentzat, hizkuntzaren ukipen-egoera aldatu egin da. **Hizkuntza oso** egoeratik, esan nahi baita beharrezkoak diren funtzio guztiak betetzeko gai zen hizkuntza izatetik, **hizkuntza ez-oso** egoerara iragan da, euskal gizartea mundu modernoan sartzearekin, erdarak funtzio horiek bereganatu dituen neurrian.

Faktore subjektiboak faktore objektiboak bezain garrantzitsuak izan daitezke (Bourhis eta Landry, 2008: 161). Faktore subjektiboetan **hizkuntza-identitatea** eta **hizkuntza-kontzientzia** aipa ditzakegu. Lehena da pertsona- edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona- edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea. Bigarrena, hizkuntza-kontzientzia, da norberaren hizkuntzari kultura-balio bereizgarria ematetik eta hizkuntza horrek norberaren hizkuntza-komunitatea definitzen duela kontsideratzetik sortzen den motibazio arrazionala. Motibazio horren bidez, hizkuntzaren ezagutzari eustea eta ezagutza hori sakontzeko joera sustatzen da. Noski, hizkuntza-kontzientzia kolektiboa ere izan daiteke.

Bizitasun etnolinguistikoa

Etnolinguistikak hizkuntzaren eta sistema soziokulturalaren arteko harremanak aztertzen ditu. Soziolinguista batzuek **bizitasun etnolinguistikoa** (edo **bizindar etnolinguistikoa**) kontzeptua erabiltzen dute, talde etnolinguistiko bati izaki kolektibo berezi gisa eratzeko eta jokatzeko gaitasuna ematen dioten faktore sozial eta estrukturalen multzoa izendatzeko. Talde etnolinguistikoa hizkuntza-eta kultura-ezaugarri bereziak dituen giza taldea da.

Bizitasun etnolinguistiko kontzeptuak gehiengo eta gutxiengo linguistikoen arteko harremanak aztertzen ditu, besteak beste. Noski, eta hauxe da hemen interesatzen zaiguna, bizitasun handiko talde etnolinguistikoek aukera handia izango dute bizirik irauteko, eta ondorioz, beraien hizkuntzak ere bai. Bizitasunaren faktoreak aurreko lerroaldean aipatu ditugunak dira, gutxi gora-behera. Faktore objektiboak eta subjektiboak uztartuz, kultura eta hizkuntza nagusiekiko ukipenean den talde etnolinguistiko batek komunitate bereizi bezala bizirauteko dituen aukerak neur daitezke.

Laugarren atalean bizitasun etnolinguistikoaren kontzeptua zehazkiago azalduko da.

3.4.3. Hizkuntzaren zabalkundea

Arestian ikusi dugu hizkuntza baten ordezkapenak bere ordez beste bat jartzea inplikatzen zuela. Batak besteak betetzen zituen erabilera-esparruak eta funtzioak betetzen ditu. Hizkuntza

bat bestea ordezkatuz hedatzen, zabaltzen da. Fenomeno hori izendatzeko erabili den terminologia honakoa da: euskaraz, **hizkuntza-zabalkundea** edo **hizkuntza-hedapena**; gaztelaniaz, *expansión lingüística*, *difusión lingüística*; frantsesez, *expansion de la langue*, *diffusion de la langue*; ingelesez, *language spread*.

Hizkuntzaren zabalkundearen bi erak

Hizkuntza baten zabalkundea bi irizpideren arabera neur daiteke: hiztun-kopuruaren arabera edo dituen funtzioen arabera. Lehen ebaluazio-irizpidea **demografikoa** da, bigarrena **funtzionala**.

Irizpide demografikoa. Hizkuntza-jarraipenaz eta -ordezkapenaz mintzatzean (3.4.2. lerroaldean) bere baitan biltzen dituen osagaiak aurkeztu dira: hiztun-kopurua, proportzioa eta banaketa (kontzentrazio demografikoa).

Hiztun-kopurua neurtzeko, hizkuntza batez mintzatzea zer den jakin behar da, ezagutza eta erabilera-maila desberdinak izan daitezkeela jakinda. Hizkuntza gutxituen kasuan, ezberdintasun horixe da gertatzen dena, eremu eta une formaletan erabilia ez delako.

XIX. mendeko Mendebaldeko Europan adibidez, frantsesa zen hizkuntza erabiliena lehen hizkuntza bezala. Orain alemana da. Aldiz, ingelesa, lehen hizkuntzatzat dutenek ez ezik, beste hiztun askok ere ezagutzen dute, alemana baino askoz gehiagok. Jaiotza-tasa ez da berez eraginkorra, garrantzitsua baldin bada ere hizkuntza-komunitate txikientzat.

Hizkuntzaren hedapenaren faktoreak

Faktore geografikoa

Hizkuntzak, bide naturalei jarraiki, ibaien bidez zein itsasoetan zehar hedatzen ziren, merkataritzarekin, kolonizazioarekin eta abarrekin. Azken urteotan, garraioen garapenak eta aldaketa teknologikoek geografiari lotua den faktore horren eragina murriztu egin dute. Baina, ikusten den bezala, geografia ez da bere baitan faktore abiarazle edo erabakigarri bat, errazte faktore bat da. Faktore erabakigarria komertzioa egiteko beharra da, edo kolonizatzeko nahian komunikatzeko hizkuntza baten beharra.

Hiri-faktorea

Hiria punpa gisa erabiltzen da, hizkuntzen hedapenaren mugimendua azeleratuz (Calvet, 1987: 131). Oro har, ohartzen da hirietako biztanleek errazki ordezkatzen dutela hizkuntza, baserrikoek baino maizago. Baserriko biztanleriak beste hizkuntza-komunitate batetik edo beste hizkuntza-aldaeretatik bere burua kontzienteki isola dezake, edo benetan isolatuago egon nahi gabe (Fishman, 1972: 126-127). Hemen ere hiri-faktorea errazte faktore bat da, zeharkako faktorea.

Faktore ekonomikoa

Harreman komertzialek hizkuntza-komunikazioa inplikatzen dute eta, beraz, hizkuntza komun bat. Gaur egun ingelesa da nazioarteko merkataritzako hizkuntza. Immigrazioaren kasuan, harrera-herriko hizkuntza beharrezkoa izaten da lan-munduan.

Erlijiozko faktorea

Hizkuntza batzuen hedapena erlijio berezi bati lotua izan da, hala nola arabiera islamari, sanskritoa hinduismoari, latina katolizismoari, etab. Hizkuntza horiek literarioak eta sakratuak ziren. Aipatu dugun hebreera, adibidez, Kristo aurreko judaismoaren hizkuntza zena, liturgia hizkuntza izateaz gain, hizkuntza mintzatu bezala berreskuratu ondoan, Israelgo hizkuntza nazionala bilakatu da XX. mendean.

Faktore militarra

Hizkuntzak inbasio militarrekin batera ere hedatzen dira, inbaditzaileen edo konkistatzaileen hizkuntza inposatuz. Latina da adibideetatik ezagunena behar bada, hizkuntza erromanikoen iturburua. Arestian esan bezala kolonizazioak eragin handia izan du europar hizkuntza batzuen hedapenean Asian, Afrikan, Amerikan, Ozeanian eta hizkuntza autoktono asko hondatu eta galdu dira (Martí eta beste, 2005: 317-319).

Faktore politikoa

Hizkuntzen hedapena botere politikoari ere lotu zaio. Hizkuntza batzuk, nazio-hizkuntzak izanik, estatu hedakorrekin hedatzen dira. Lurraldeko elitea estatu hedakorreko hizkuntza ikasten hasten da eta tokiko administrazioan baliatzen du, estatuko administrazioarekiko harremanetan. Ondotik, gizarte-klase baxuetako jendeak bere burua behartuta ikusten du agintzen duen elitearen hizkuntza ikastera. Hau da Euskal Herrian Espainiako eta Frantziako nazio-hizkuntzekin gertatu dena. Botere politikoak eragin handia izan du gaztelaniaren eta frantsesaren hedapenean, euskal elebakartasunaren desagertzera arte.

Hizkuntzen egoera eta geroa hautaketa politikoen menpean dago. Politikaren alor hori hizkuntza-politika deitzen da. Hizkuntza-politika hizkuntza-plangintzan gauzatzen da. Bi alor horiek 5. atalean aztertuak dira.

Faktore kulturala, prestigioa

Hizkuntza bat prestigioduna izan daiteke, bere literaturarengatik edota zibilizazio-hizkuntza izateagatik, esan nahi baita munduko zibilizazio-mota bati lotua izateagatik (ingelesa mendebaldeko zibilizazioari, grekoa, latina, mandarin-txinera, etab.).

Hizkuntza baten edo barietate baten ezagutzak gizarte-mugikortasuna eta igoera eragin diezaioke hiztunari, batez ere goi-mailako klase soziokulturalena bada. Hizkuntza edo hizkuntza-barietate horrek prestigioa irabazten du. Ikusi dugun bezala, kolonizatzaileen hizkuntzaren kasua izan daiteke. Baina euskara batuaren kasua ere bada, euskalkien aurrean, euskaldun zahar batzuentzat. Prestigioak botere ideologiarekin dauka zerikusia.

Hizkuntza prestigioduna eta kultura-hizkuntza izatea ez da gauza arras berdina; literatura ospetsua izateak hizkuntzari prestigioa ematen dio. Prestigioa irizpide askotako faktorea da.

Halere, eragile kulturala pisu gutxikoa da eragile ekonomikoen eta politikoen aurrean. Horregatik, XIX. eta bereziki XX. mendeetan, XVIII. mendeko Europan gutxiengoak, eliteak edo gorteak erabiltzen zuen frantsesaren hedapena atzeratu da (Calvet, 1987: 270).

Horrela, nazioarteko merkataritzako hizkuntza izanik, zientzia modernoetako hizkuntza bakarra eta munduko lehen komunikazio-hizkuntza bihurtuz, ingelesa munduko **bigarren hizkuntza** erabiliena bilakatu da gaur egun, mandarinaren atzetik. Ingelesaren berezko indarra handihandia da. Bizindar handi horrek bere hedapena indartzen du eta, alderantziz, hedapenak bizindarra handitzen du.

Hizkuntza indartsuak eta ahulak: hizkuntza-darwinismorik ez

Hizkuntza-hedapena beste hizkuntza batzuen kalterako egiten da beti. Komunikazio-hizkuntzak edo nazioarteko hizkuntzak, hizkuntza desberdinetako edo herrialde desberdinetako hiztunek elkar ulertzeko erabiliak direnez, hizkuntzen arteko lehiaketaren ondorioak dira. Ondorioz, bi aukera badaude: edo beste hizkuntzei gehitzen zaizkie, edo aurreko lerroaldean ikusi dugun bezala, ordezkatu egiten dituzte.

Normalean, nazioarteko hizkuntzek ez dituzte besteak ordezkatzen. Komunikazio-hizkuntzak gizarte bateko klase baten hizkuntza bilaka daitezke, eliteenak, kolonizatzaileenak edo tokiko goiko klaseenak, adibidez. Transformazio-prozesuaren bidez kreolerak ere bilaka daitezke (3.2.4.).

Halere, azpimarratu behar da ikusmolde horrek deus ez duela ikustekorik hizkuntza-darwinismoarekin. Hona azken honen definizio bat: *Hizkuntzek Darwinen eboluzio-teorien araberako bilakaera dutela defendatzen duen hizkuntza-ideologia. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko lirateke, ahulenak baztertuta* (UZEI, argitaratu gabe: 22).

Zabalkundeak ez dira ordezkapen prozesu naturalak; giza komunitateen, gizakien ekintzen ondorioak dira. Hizkuntza ahulenek ere beren lekua izan dezakete. Horretarako, hizkuntza-komunitate horren hizkuntza propioa biziraunarazteko borondatea azkar izan behar da, eta hori lortzeko politika egokia jarri behar da indarrean (5. atala).

3.4.4. Euskararen hautaketa, jarraipena eta erdararen zabalkundea: beste ohar batzuk

Euskararen eta erdaren (gaztelania eta frantsesa) arteko aspaldiko erlazioek adibide ona eskaintzen digute 3.4. azpiatalean azaldu ditugun gogoetak, nozioak eta kontzeptuak irudikatzeko. Alor horretan sartzen diren argitalpenak, lanak, ikerketak ugariak dira. Denak aipatzea edo laburbiltzea luzeegi litzateke. Hona, halere, gogoeta batzuk.

Faktore demografikoaz

Euskaldun-jendea, kopuruz, gutxiengoa da Euskal Herrian: biztanleen % 25,7 elebidunak dira eta % 15,4 elebidun hartzaileak, hots, euskaraz (ongi) hitz egin ez arren ulertzeko gai direnak (Eusko Jaurlaritza, 2008). Gainera, sakabanaturik daude, hiri handietan bereziki, erdaldunak kopuruz eta sozio-kulturaz nagusi diren inguruetan. Ipar Euskal Herrian Baigorri edo Hego

Euskal Herrian Markina herri euskaldunen adibideak dira. Orotara, hau da panorama demografiko orokorra. Oro har, euskaldunen kontzentrazio demografikoa ahula da.

Belaunez belauneko transmisioa eta ingurune hurbila

Azpimarratu dugu jadanik nola garrantzitsua den euskararen familia bidezko transmisioa. Halere, familiatik kanpoko bizitzan, lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilean, euskararen presentzia murritza izan daiteke, eta hori da usuenik gertatzen dena, euskaldunen kontzentrazio demografikoari lotua zaiolako.

Beraz, familiako transmisioa garrantzitsua izanik ere, ez da erabakigarria diglosia desorekatua gainditzeko. Esparru formaletan ez ezik, eskola salbu, gehienetan esparru informaletan ere euskarak indar handirik ez du.

Euskararen berezko indarra eta ingelesarena

Ingelesaren berezko indarra, euskararenarekin konparatuz, oso handia da. Zalbidek eta Erizek *Zer ikasi nahiago dute gure arteko herritar heldu erdaldunek, euskara edo ingelesa?* galderari erantzunez hori erakusten dute (2008: 72-73). Mendebaldeko mundu osoan bezala ingelesa irakasteko kanpaina beharrik ez dago Euskal Herrian. Euskara irakasteko, aldiz, laguntza publikoa beharrezkoa da; euskara ikasteko nahia pizteko kanpainak beharrezkoak dira, bai heldu etorkinentzat, bai Euskal Herriko erdaldunentzat. Adibide horrek euskararen berezko indarra ingelesarena baino ahulagoa dela frogatzen du.

Elebitasuna nahitaezkoa da

Elebidun edo eleaniztun izatea pertsona ikasien ezaugarria da, oraingo mundializazio egoeran, gero eta gehiago, beharrezko bilakatzen baita, edo hiztun-komunitate txiki batena. Euskaldunek hori aspaldidanik dakite eta, oraingo munduan ere, agertzen da euskara biziraunarazteko erdara ezagutzea beharrezkoa dela, kontraesankor iruditzen baldin bada ere.

3.5. ONDORIO GISA: HIZKUNTZEN EKOLOGIA, LEHEN IKUSPEGIA

Atal honetan, gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen diren erlazioak azaldu dira, baita hizkuntza-komunitateen arteko erlazioak ere. Erlazio dinamiko horiek beraien gizarte-ingurunean aztertu dira. Hizkuntza-ukipenaren ondorio indibidualak, linguistikoak eta sozialak banan-banan erakutsi dira, jokoan diren prozesuak azalduz.

Hizkuntza-ukipenari buruzko ikuspegi orokor eta globala eman nahian agertzen da **hizkuntzen ekologia** nozioa, hizkuntzen arteko erlazio konplexuak ulertzeko modelo bat ekartzen digu eta.

Hizkuntza-ekologia: *Hizkuntza baten eta bere inguru-menaren arteko harremanak aztertzen ditu* (Haugen, 1972). Ingurumena definitzeko kontuan hartzen ditu alderdi psikologikoak (hizkuntza horrek beste hizkuntza batzuekin duen harremana hiztunaren buruan) eta soziologikoak (gizartearekin duen harremana komunikazio bide gisa).

Ekologiak organismo bizien eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen ditu eta ez dira izaki bizidunak. Halere, zientzia biologiko horren hurbilketa zientifikoa baliagarria izan daiteke gizarte-zientzietan.

Oro har, hizkuntzen eta hizkuntza-komunitateen arteko erlazioak ekologiaren ikusmoldearekin uler daitezke. Hizkuntzek eta hizkuntza-komunitateek elkarrekin dituzten harremanak sistema dinamikotzat hartzen ditu hizkuntzen ekologiak, eta haien arteko orekaren eta hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik aztertzen ditu. Desorekatik aldaketa, erregulazioa sortzen da.

Hizkuntza bakoitzak bere **zoko ekologikoa** okupatzen du hizkuntza-ekosisteman, bere funtzioek eta ingurumenarekiko erlazioek determinatzen dutena (Calvet, 1999: 35). Asko aldatzen dira hizkuntzen egoerak munduan toki batetik bestera, eta eragiten dituzten faktoreak edo parametroak oso konplexuak dira. Hizkuntzen ekologiak tresna deskribatzaile zenbait ekartzen ditu horiek ulertzeko.

Maila gorena da hizkuntzen arteko mundu antolaketa. Munduko hizkuntzek *galaxia* bat egiten dute eta hiztun elebidunek elkartzen dituzte. Batetik, hizkuntza **zentralak** ditugu, adibidez, ingelesa mundu osoarentzat edo errusiera sobietar bloke ohian; bestetik, **periferikoak**, euskara bezalakoak. Eskuarki, hizkuntza periferikoko hiztunek hizkuntza zentral bat ikasten dute, edo goragoko hizkuntza bat bederen. Hau da joera orokorra, elebitasun bertikala.

Lau maila dira *hizkuntzen grabitazio-sistema* horretan: ingelesa bakarra maila gorenean, hamar bat hizkuntza bigarrenean (arabiera, errusiera, frantsesa, gaztelania, hindia, portugesa, swahilia…), ehun bat hirugarren mailan (banbara edo wolofa Afrikan adibidez, txekiera edo armeniera Ekialdeko Europan) eta laugarrenean besteak (Calvet, 1999: 78-79), euskara tartean.

1. maila	Hizkuntza *hiperzentrala* (*hyper-centrale*): ingelesa
2. maila	10 bat hizkuntza *superzentral* (*super-centrale*): frantsesa, gaztelania, swahilia...
3. maila	100 / 200 hizkuntza zentral: banbara, wolofa, txekiera, armeniera...
3. maila	4.000 / 5.000 hizkuntza periferiko: euskara, okzitaniera, bretoiera...

7. taula: hizkuntzen grabitazio-sistemako mailak (Calvet, 1999).

Hizkuntza/gizarte bikoteak sistema autorregulatu bezala funtzionatzen du, giza egitatea kontuan hartzen duena. Hizkuntza egoeren autorregulazioa eta hizkuntzen barne-erregulazioa dira.

Kreolerak, adibidez, aklimatazio kasuak lirateke, belaunez belaun transmititzen diren hizkuntzak bilakatuak direlako ingurune berri batean.

Hizkuntzen ekologiak edo ekolinguistikak hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu, esan nahi baita hizkuntzen arteko harremanak, eta hizkuntza horien eta gizartearen artekoak; izan ere, gizartea hizkuntzen ingurumena da. Noski modelo hori metafora bat da, baina erlazio konplexu horiek ulertzen laguntzen digu, printzipio deskriptibo eta esplikatzailea ekarriz.

Modelo deskribatzaile eraginkorra izateaz gain, hizkuntzen ekologia hizkuntza-desberdintasuna mantentzeaz arduratzen da, hizkuntzek, denek, "txiki"-ek barne, gizadi osoari aberastasuna ematen diotela argudiatuz.